

Patxi Agirrezalsala

ELAKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

## ELAk hautua egina du

**E**z da egun bateko burutazioa izan. Aspaldidanik genbiltzan lantokiz lantoki eta sektorez sektore gizarte eredu eta negozioz kolektiboaren jirabiran hausnarketa sakona egiten. Hausnarketaz haratago mobilizapen ugariak ere garatu ditugu bi urte hauetan, hori baita gure ekimen sindikalaren ardatzetako bat eta. Batzuk aurrez burutu dugun lana ezkutatzen saiatu dira eta greba deialdiaren urgutzia eta bat-batekotasuna argudiotzat erabili dute beren burua zuritu nahian edo. Bestelako iritzia du langile klaseak, ordea, bera baita egorearen gordina aspalditxo pairatzen ari den giza taldea.

Greba orokorrera deitu zuen euskal gehiengo sindikalarentzat egun handia izan zen maiatzaren 21ekoa. Deialdia egun beretik greba eguna bukatu arte lanuztea zapuzteko hitzarturik ahalegindu diren botere politiko, ekonomiko, sozial eta makina bat hedabideren bitarteko guztien gaintik, langile klaseak erakustaldi ederra eman du. Oso argi erakutsi du, besteak beste, adorea eta kemena baduela gobernu eta patronalen erasoei aurre egiteko; euskal sindikalgintza bizirik eta indartsu dagoela; okerren daudenekin elkartasuna adierazteko gaitasun handia duela; eta sindikalgintza abertzalearen agenda eta helburuak ez direla makurtzen botereen esanetara. Ez da gutxi.



INIGO AZKONA

Horregatik, meritu handiagoa du grebaren aurka oldartu direnen manipulazioa gainditu izanak. Baita, probokazio gisa, lana egin nahi eta bere eskubidea bermatu nahi omen zutenen bitarteko guztien erabileratik aldendu izanak. Hedabideetako lerroburuan istiluen berri ematea nahi zutenek amore eman behar izan zuten grebaren aldeko langileen borondatezko atxikipen zabala antzeman zutenean. Inor gutxik eman ditu, bestalde, grebaren benetako arrazoiak. Are gehiago, ez dira kolokan jarri banan-bana azal dutako arrazoiak; aldiz, horiek ezkutatzen saiatu dira.

Baina guzti horiek alde batera utzita, benetako zoriona langileei dagokie. Eurak izan dira protagonistak grebaren ikusgarritasuna erabatekoa izan dadin bazter guztietan, Nafarroako Tuteratik Bizkaiko Soduperaino eta Gipuzkoako Iruñdik Arabako Oionera ere. Eguerdiko lau hiriburuetako manifestazio jendetsuek edozein propaganda faltsu eta erabilera interesatu agerian utzi dute.

Aurrera begira, jarraitu beharra dago mobilizazioarekin. Aldatu nahi ez dituzten politikak aldarazi eta patronalaren xantaia bizkarretik astintzeko ezinbestekoa zaigu oraingo lan dinamikan jarraitzea. Hori da ELAk hautatu duen bidea. ■

«  
Aldatu nahi ez dituzten politikak  
aldarazi eta patronalaren xantaia  
bizkarretik astintzeko  
ezinbestekoa zaigu oraingo lan  
dinamikan jarraitzea  
»

## TXANDAN

Joseba Barandiaran

### Entsalada



Bazen behin, barraskilo bat, letxua jaten ari zena. Goxoagoak zirelako, letxua barruko hostoak jaten ari zen. Halako batean, esku bat etorri, letxua hartu, txorrota- ren azpian jarri eta barraskiloa bueltaka eta bueltaka hasi zen. Eta alde guztietatik ura erortzen zitzaion barraskilo-ari eta buelta eta buelta eta, halako batean, eskua hosto-ak botatzen hasi eta...: katapunbala! Entsaladara erori zen, tomatearen, atunaren eta patataren ondoan. “Barraskilo?! Baina zuk zer egiten duzu hemen?” esan zion eskuak. “Bada lasai, lasai letxua, jaten ari nintzen

eta, bat-batean, entsaladara jausi naiz!” erantzun zion barraskiloak. “Beeno, barraskilo; berriro baratzera eraman- go zaitut baina, hurrengorako, letxua kanpoko aldetik jan behar duzu; barrura sartu gabe. Bestela, esku bat etorri, letxua hartu eta entsaladan amai dezakezu. Eta hala, barraskiloa poz pozik itzuli zen baratzera”. Eta hala bazan, ala ez bazan, sar dadila kalabazan; eta atera dadila Abusuko plazan.

Bi gauean behin, alaba txikiari kontatzen diot ipuin hau. Eta egunero hau baino ipuin zatarragoak askotan entzun behar izaten ditugunez, zuretzat opari, irakurle. ■